



## GURE BEGIRADA EKITALDIKO BIGARREN DEIALDIKO OINARRIAK

### 1. EKITALDIKO HELBURUAK

Pertsona itsuek daukaten erronka sozialei irtenbide berritzaileak sortzeko nahairekin elkartu dira ONCE fundazioa eta MTA. Xedea lortu ahal izateko parte-hartzaileei erronka desberdinak proposatzen dizkiegu. Talde bakoitzak Gure Begirada taldeak proposatutako 3 erronketatik bat aukeratuko dute. Erronkak osasunaren eskuragarritasunean, etxe bizitzako eginkizunetan automoak izatea eta egunerokotasunetako beharretan oinarritzen dira.

### 2. TALDEEN BALDINTZAK

Gure Begirada ekitaldia Euskal Herriko unibertsitateko ikasleentzat zabalik dago baita ere, Euskal Herrian dauden erdi edo goi mailako heziketa zikloko ikasleentzat beti ere, adin nagusikoak badira. Gainera, parte hartzaileak edozein karrera edo zikloko ikasleak izan daitezke, beti ere balditza hauek betetzen badute.

- Parte hartzaileak ekitaldira bakarka ala taldean aurkeztu daitezke. Bakarka parte hartu ezkerok Gure Begirada taldearen esku geratuko da pertsona horrentzako taldea sortzea.
- Taldeak gutxienez bi pertsonak osatu behar dute eta gehienez 5 pertsonak.

Esan bezala, taldekide guztiek gaur egun (2022-2023 kurtsoa) karrera edo ziklo bat ikasten egon behar dira. Taldea karrera edo ziklo desberdineko pertsonekin osatu daiteke, Gure Begirada taldeak hura gomendatzen du esperientzia aberasgarriagoa sortzeko.

- Talde parte-hartzaileek proiektu bakarra aurkeztu dezake aukeratutako erronkari irtenbidea emanaz.

### 3. PARTE HARTZEKO ESKAERA ETA EPEA

Parte hartu nahi izan ezkerok izena Gure Begirada web orrian([www.gurebegirada.com](http://www.gurebegirada.com)) dagoen inskripzio-imprimikian eman behar dute. Inskripzio berean parte-hartzaile guztien izen abizenak, posta elektronikoa eta aukeratutako erronka adierazi behar dute.

Bakarrik parte hartzen duten ikasleek ere datu berdinarak bete beharko dituzte inskripzio orrian.

Izena emateko epea 2022ko irailaren 1an zabalduko da eta 2022ko irailaren 30an emango diogu amaiera.

#### Antolatzaileak:



#### Babesleak:



#### 4. EKITALDIAREN ANTOLAMENTSU-EPEAK:

Ekitaldia bi fase desberdinetan banatuko dugu:

1. Lehengoko fasea online eingo dugu 2022ko urriaren 06an 9.00tan hasiz eta amaiera 22.00tan emanaz ( eskatutako lan guztiak ordu horretarako bidalita egon behar dira).
2. Gure Begirada taldeak entregagai guztiak analizatuko ditu sei talde finalistak aukeratuz. Horiek ekitaldiko bigarren fasera pasatuko dira.
3. Ekitaldiko bigarren fasea presientzialki egingo da Bilbon 2022ko urriaren 13an. Gastu guztiak Gure Begirada taldearen esku geratuko dira.

#### 5. PROIEKTUAK HAUTATZEKO ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Lehen faseko talde guztien proiektuak irizpide puntu batzuk jarraituz baloratuko dira

a) Erronka kontutan edukitzea (20%). Proiektuaren xedea baloratuko da aukeratutako erronkarekin bat eginda dagoela analizatuz.

b) Proiektuaren berrikuntza (20%). Ezaugarri berritzailea eduki behar du sortutako irtenbideak. Irtenbide horiek pertsona itsuen bizitza hobetu behar dutelako.

c) Inpaktu soziala(20%) Sortutako proiektuek inpaktu sozial positiboa sortzen dutela garbi adierazi behar dute aurretik lan sakona eginez.Hau da, aldaketa nabari bat eragin behar dute pertsona itsuen bizitzan.

d) Inpaktu digitala (20%) Proiektuetan inpaktu digitalaren garrantzia nabaritu behar da. Hau da, erronkari emandako irtenbidea oraingo egoerara egokituta dago eta garai digital berriari eragin eta ikuspegi argia ematen dio.

e) Erabiltzaile eta merkatu ikerketa(20%) Sortutako irtenbideetan baloratu egingo da zenbateko garrantzia eman dion erabiltzailearen beharrei eta hori lortzeko egin duten ikerketari.

\*Bigarren fasera pasatzen diren proiektuei balorazio irizpide berdinak erantziko zaie beste irizpide garrantzitsu bat erantziz:

e) Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa(20%) Proiektuaren negozio ereduaren garapena eta hura hazteko eta eskalatzeko aukerak baloratuko dira.

Baita ere, epai-mahailaren aurrean Bilbon egindako aurkezpena kontutan edukiko da talde irabazlea aukeratzeko.

#### 6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Ekitaldian parte hartu ahal izateko, web orrian dagoen inskripzio-imprimakia bete behar da, hirugarren klausulan adierazi bezala.

Lehengoko fasean parte hartzen duten taldeek onako hau aurkeztu behar dute:

- Entregagai 1.

Dokumentuak eskatzen dituen fase guztiak bete ostean 4. klausulan azaldutako epeak errespetatuz bidaliko dute.

Azkenik, bigarren fasera pasatzen diren taldeak hurrengoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dute:

- Entregagai 2.
- Proiektuaren prototipoa.
- Proiektuaren aurkezpena.

\*Aurrerago adieraziko diegu taldeei bigarren fasearen antolamentu zehatza.

## **7. GURE BEGIRADA TALDEAK ERRAZTEN DUEN DOKUMENTUAK**

Gure Begirada taldeak web orrian [www.gurebegirada.com](http://www.gurebegirada.com) erantsiko du taldekideei lagungarri gisa dokumentu hauek:

- Gure Begirada ONCE ekitaldiko arauak 2022.
- Entregagarriak gauzatzeko tresnak.

6.klausulan adierazi ditugun entregagarriak parte hartzaileei, ekitaldiaren hasieran bidaliko diogu.

## **8.SARIAK, EMAITZAK ETA EPEAK**

Gure Begirada ekitaldiko epai-mahailek urriaren 13an aukeratuko dute ekitaldiko irabazlea.

Epai-mahaila pertsona hauek osatuko dute: ONCEko ordezkari bat, Euskal Jaurlaritzako ordezkari bat, hiru unibertsitateko ordezkariak eta azkena unibertsitate bakoitzeko irisgarritasun arloko arduraduna.

Talde irabazlea 1000€ko saria edukiko du, bigarren talde irabazlea 500€ko saria jasoko du eta azkenik hirugarren talde irabazleak 300€koa. Gainera, eta proiektua garatzeko laguntza edukiko dute ONCEko taldearen eskuz. Sarien banaketa urriaren 13an izango da Bilbon.

Diru saria sari banaketa ofizialaren ondoren emango zaio talde bakoitzari. Talde irabazleak Gure Begirada taldearen baita ONCE taldearen laguntza izango du sari banaketa egunetik aurrera kontaktu zuzena ahalbideratuz.

## **9. JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK**

Gure Begirada ekitaldian parte hartzen duten taldeak izango dira sortutako proiektuaren jabe bakarrak.

Hala ere, deialdian parte hartzeak berekin dakar parte hartzen duten proiektuetatik eratorritako jabetza intelektualeko eta/edo industrialeko ustiapen-eskubide guztiak ustea, eskusiboki, doain eta eskualdatzeko moduan, mundu osoan eta legez baimendutako gehieneko epean.

Guzti honek Gure Begiradari ematen dio aurkeztutako proiektuak ustiatzeko erabateko prestasuna eta eskubidea, beste edozein pertsona fisiko eta/edo juridikok izan ezik, eta hirugarrenei lizentziak emateko ahalmena ere emanez.

Horrek adierazten du talde parte hartzaileek ezin dutela erabili aurkeztutako proiektuak Gure Begiradako ekitaldiko helburua betetzen ez duen beste akzio baterako.

Era berean, lagapen horrek esan nahi du, proiektuak gauzatzearen esparruan, jabetza industrialeko edo intelektualeko titulu baten bidez babes daitekeen emaitza sortuko balitz, Gure Begiradak hura babesteko eskubidea izango lukeela, baina ez betebeharra, eskubideen titularra Gure Begirada izanik.

Gure Begiradak beretzat gordetzen du hautatutako proiektuen emaitzak argitaratzeko eta zabaltzeko eskubidea, alde batera utzi gabe parte hartzen duten taldeek Gure Begiradari eska diezaioketela aurkeztutako proiektuak argitaratzea talde parte-hartzailea hautatzeko hedabideetan, eta jasotako babesa honela adierazi beharko dute: "Proiektuaren izenburua: Gure Begirada ONCE 2020 lehiaketa". Ondorio horietarako, Gure Begiradak argitalpenaren aurretik berariazko baimena eman beharko die talde eskatzaileei, eta baimena ukatzeko eskubidea izango du, inguruabarren arabera.

Gure Begirada ekitaldiko talde parte-hartzaileak behartuta daude Gure Begiradarekin eta ONCEekin partekatutako informazio edo datuak gordetzea. Hura bete ez ezker, sortutako kalteei erantzuteko beharra daukate.

## **10. IRUDI ESKUBIDEAK**

Gure Begiradako ekitaldian parte hartzerakoan parte hartzaileek baimena ematen dute horien izen abizenak eta ateratako irudiak sare sozial desberdinetan partekatzeko aukera ematea legez onartutako gehinezko denboran.

Erabiltzen diren irudiek parte-hartzaileek sortutako proiektuak iragartzeko eta hedatzeko xedea daukate.

## **11. DATUEN BABESA**

ONCE Espainiako Itsuen Erakundeak, indarrean dagoen datuen babesari buruzko araudia betez, jakinarazten dizu prozesu honetan eman dizkiguzun datu pertsonalak Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaren (ONCE) ardura izango direla (helbidea: Pérez Galdós kalea 11, Bilbo), eta soil-soilik tratatuko direla.

Zure eskaera tramitzatzeko Gure Begirada ONCE 2020 lehiaketaren deialdian, zeuen borondatez sinatu baituzu. Bestalde, jakinarazten dizugu atzitzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzula helbide elektronikoko honetara idatzita: [gurebegirada@gmail.com](mailto:gurebegirada@gmail.com).

## **12. ARAUEN ONARPENA**

Eskaerak deialdiaren oinarri eta baldintza guztiak inolako salbuespenik gabe onartzea eta betetzea dakar.

Laguntza ematea, onartzea eta lehiaketan zehar lana garatzeak, ez du inolako lan harremanik suposatzen Gure Begiradarekin edo ONCEekin.